# HEGAZTIAK

Testua eta irudiak: DAVID DANIEL ÁLVAREZ HERNÁNDEZ

MARÍA JULIA DÍAZ GARRIDO

Itzulpena: FERNANDO REY ESCALERA

Azal gogorrean egina. 22,5 x 33 cm. 32 or. 15 €.

Lamina bat opari.

-ALBUM IRUDIDUNENTZAKO "COMPOSTELA NAZIOARTEKO V. SARIA
-THE WHITE RAVENS 2013

**Hegaztiak** (euskara)
ISBN 978-84-7681-744-5. Kalandraka-Pamiela.

**Bandada** (gaztelania)
ISBN 978-84-8464-804-8. Premio Compostela.

**Bandada** (galegoa)
ISBN 978-84-8464-805-5. Premio Compostela.

**Bandada** (katalana)
ISBN 978-84-15170-23-5. Kalandraka-Hipòtesi.

**Aves** (portugesa)
ISBN 978-989-8205-88-9. Livros para Sonhar.

**Stormo** (italiera)
ISBN 978-88-95933-55-9. Premio Compostela.

*Egun batean, hegaztiek adarrez eta hostoez harantzago begiratu, eta bestelako bizimodu bat imajinatu zuten. Horrela, aro berri bat hasi zen. Eta inguratzen zuten guztiaren zergatia eta mamia azaldu zieten beren umeei...*

"Hegaztiak" izan zen, 19 herrialdetatik iritsitako 256 lanen artean, Album Irudidunentzako "Compostela" Nazioarteko V. Saria irabazi zuen obra. Ipuinak, esaldi labur eta iradokitzaileen bidez, gizateriaren historiari buruzko gogoeta sakona proposatzen du: gizarteak, ezagupenak, garapen tekniko eta zientifikoa, ongizatea eta etorkizun hobea lortu nahian, aurrera egin nahi du garapenean, baina, ibilbidean, indarkeria sortzen du, indartsuek ahulak zapaltzen baitituzte.

Ikuspuntu estetikotik, "Hegaztiak irakurtzean" irudien sinbolismoa da nabarmena: hegazti gizatiartuak ageri dira, xehetasun handiz eginak, zuri-beltzean.

Epaimahaiak –tartean Felicidad Orquín editore eta ikertzailea eta Xan López Domínguez irudigilea zeuden–, besteak beste, "kalitate handiko eta adierazgarritasunaren indarra" eta irudiak lortzeko teknika artistikoaren "birtuositatea" nabarmendu ditu, baita lirismo poetikoa, paradoxa eta itxaropen mezua ere, trebeki eramana muturrera, istorio honetan hegaztiak maisuki lotzen baitira pertsonak hegan egiteko duen berezko ezintasunarekin.

www.Kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com
www.Pamiela etxea.com
soltxate@pamiela.com




- **Gaia:** gizateriaren historia, alegia bihurtua.
- **Adin egokia:** 7 urtetik aurrera.
- **Nabarmentzeko moduko datuak:** V Album Irudidunentzako "Compostela" V. Saria. Birtuositate teknikoa, Irudiak zuri-beltzean; ikusizko sinbolismoa eta sinbolismo literarioa. Itxaropen mezua.

### David Daniel Álvarez Hernández

(Mexiko Hiria, 1984)

David Álvarez (Mexiko Hiria,1984) lizentziaduna da, EDINBAN lortua (Mexikoko Arte Ederren Institutu Nazionaleko Diseinuko Eskola).. Arte Plastikoetako ikasketek irudigintzara arlora eraman zuten, eta, arlo horretan, nazioarteko zenbait sari jaso ditu: Irudien Lehen Saria, ikasleen mailan, Diseinuaren 2011ko Topaketa Latino-amerikarrean (Palermoko Unibertsitateak antolatua); Bigarren Saria Mexiko Hiriko Haur eta Gazteentzako Argitalpenetarako Irudigileen 2011ko Katalogoan; Lisboako 2012ko ILUSTRARTE izeneko Biurtekoan ere hautatua izan zen. http://escamasdeplata.blogspot.mx/

### María Julia Díaz Garrido

(Mexiko Hiria, 1986)

Julia Díaz (Mexiko Hiria,1986) Diseinuko lizentziaduna da, EDINBAN lortua (Mexikoko Arte Ederren Institutu Nazionaleko Diseinuko Eskola). Liburu irudidunak sortzeko eta argitaratzeko hainbat tailerretan hartu du parte (haietako batzuetan Gabriel Pacheco, Javier Zabala eta Suzanne Zeller artista entzutetsuak izan dira irakasle).

